DOCUMENTO
_ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 3 (euskera)

IDENTIFICADORES

OTROS DATOS
Código para validación: 71PSB-LKW2A-21408
Fecha de emisión: 20 de Diciembre de 2021 a las 14:25:50
Página 1 de 9

FIRMAS
El documento ha sido firmado por :
1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 12:13
2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 13:31

ESTADO
FIRMADO
20/12/2021 13:31

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

# 3. ZERGA ORDENANTZA

# TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

## AURKIBIDEA:

| |
|---|
| **I. Xedapen orokorrak**<br>1 eta 2 artikuluak |
| **II. Zerga egitatea**<br>3 artikulua |
| **III. Salbuespenak eta hobariak**<br>4 artikulua |
| **IV. Subjektu pasiboak**<br>5 artikulua |
| **V. Kuotak**<br>6 artikulua |
| **VI. Zerga zoiz sortzen den eta zein den kontzeptua eta objektua. Zerga-aldia eta ordaindu beharraren sorrera**<br>7 artikulua |
| **VII. Kudeaketa**<br>8tik 13ra artikuluak |
| **VIII. Azken xedapen** |

## 3. ZERGA ORDENANTZA

**Azken aldaketa Udalbatzak 2021/09/27 eguneko osoko bikura erabakiz**
**Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2021/10/06 eguneko 114 zk.an**
**Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2021/11/20**
**Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2021/11/29 eguneko 136 zk.an**
**Indarrean sartu: 2022/01/01**

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

# 3. ZERGA ORDENANTZA

# TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### *1. Artikulua*

Laudio Herriko Etxeak honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat eta uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauarekin bat, ebatzi du exijitzea Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

### *2. Artikulua*

Ordenantza hau Laudioko udal barruti osoan aplikatuko da.

## II. ZERGA EGITATEA

### *3. Artikulua*

Zerga egitatea edo objektua honako hauxe da:

1. Herri bideetatik ibil daitezkeen Trakzio mekanikodun ibilgailuen titulartasuna, mota eta kategoria edozein delarik ere, Zirkulazio baimenean azaltzen den helbidea Udalerri honi dagokionean.

2. Ibiltzeko, ibilgailu baliagarria da dagozkion herri erregistroetan matrikulatu dutena, bertan baxarik sortu ez duen bitartean. Zerga honen ondoreetarako baliagarritzat hartuko dira ere aldi baterako baimena eta matrikula turistikoa dutenak.

3. Ez dira zerga honen menpean lotuta egongo honako hauek:

a) Modelo zaharra izateagatik erregistroetatik ateratako ibilgailuak, betiere, mota horretako ibilgailuen erakusketa, lehiaketa edota lasterketetan ibiltzeko salbuespen baimena izan badezakete.

b) Trakzio mekanikodun ibilgailuek tiratutako atoi eta erdi-atoiak, baldin eta 750 kilogramo baino handiagoa ez den karga erabilgarria badute.

## III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

## *4. Artikulua*

1. Zerga hau ordaintzetik salbuetsita daude:

a) Estatu, Euskal Autonomia Erkidego, Araba Foru Aldundi eta Toki Erakundeetako ibilgailu ofizialak, Defentsari edo hiritarren segurtasunari atxikitakoak.

Halaber, salbuetsita egongo dira LaudioUdaletxearen jabetzapeko ibilgailuak.

b) Ordezkaritza diplomatikoetako eta bulego kontsularretako ibilgailuak, eta baita hurrenez hurreneko herrialdetako hiritarrak diren eta karrera kautotuak dituzten agente diplomatikoen eta funtzionario kontsularren ibilgailuak ere, baldin eta kanpotik identifikaturik badaude eta hedaduran eta graduan elkarrekikotasuna badute. Halaber, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen eta erakunde horietako estatutu diplomatikodun funtzionario edo kideen ibilgailuak.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoaren indarrez aplikaziokoa zaien ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu edo gaixoak lekuz aldatzeko zuzeneko xedea dute anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatu badaude.

Era berean, zergaren ordainketatik salbuetsiko dira 14 zerga zaldi duten eta elbarrien izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hori egoerak dirauen bitartean bakarrik aplikatuko da, bai elbarriek gidatutako ibilgailuen kasuan bai elbarriak eramateko ibilgailuen kasuan.

Zergatik salbuetsita ere geldituko dira, guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela-eta, % 65 edo gehiagoko ezintasun maila duen pertsona bat zaintzeko ardura dutela egiaztatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko onuradun diren subjektu pasiboei ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauexek dira ezinduak:

a’) % 33ko edo hortik gorako eta % 65etik beherako ezintasuna aitortuta duen pertsona eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.

b’) % 65eko edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonak.

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

Aurreko a’) eta b’) letretan sartuta dauden pertsonen artean,1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzura xederatu edo atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, beti eta 9 plaza baino gehiagoko harrera ahalmena badute, gidariarena barne.

g) Nekazaritza Ikuskapenerako Kartila duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria.

2. Artikulu honetako 1. ataleko e) eta g) letrek aipatzen dituzten salbuespenak eduki ahal izateko, interesatuek salbuespen horiek eskatu beharko dituzte eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onura hori lortzeko karia eta kausa adierazi beharko dituzte. Udal administrazioak salbuespena ematen badu, agiri bat luzatuko da salbuespena eman dela ziurtatu eta egiaztatzeko.

3. Goiko 1. idatzi-zatiko e) letrako bigarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, interesatuak aurkeztu beharko du bere ezintasuna egiaztatuko duen ziurtagiria eta, hala bada kasua, mugikortasun murriztuko gabeziazko egoerari buruzkoa agintedun organoak emana eta justifikatzea Laudio Herriko Etxearen aurrean ibilgailuaren xedea eta objektua. Adieraztea, goian aipatu den ziurtagiriaz gain, eta dagokion eskaera-orriarekin batera, aurkeztu beharko duela, halaber, ibilgailuaren zirkulazio baimena eta ibilgailua berak bakarrik erabiltzekoa bada, bere gida-baimenaren kopia erantsi eta atxikiko du; azkenik, bera leku batetik bestera eramatekoa bada, eskaera-orrian jasoarazi beharko ditu gidariaren izena, abizenak eta NANa, eta gidari honen gida-baimenaren kopia, ezinduaren helbidean erroldatuta egon beharko delarik.

4. Bost edo plaza gehiagoko ibilgailu-jabea famili-ugariko kidea den ibilgailuetarako eta familia bakoitzeko ibilgailu baterako bakarrik,erabaki da kuotan hobaria egitea, ondorengo koadroaren arabera:

| Seme-alaba kopurua | Familia unitatearen gehienezko diru sarrera garbiak (eurotan) | Hobaria |
|---|---|---|
| 2 seme-alaba (desgaitasuna duen 1 edo guraso bakarreko familia) edo 3 seme-alaba | ((DBE + EPO) x ehuneko 150) x 2 x 14 | % 30 |
| 4 eta 5 seme-alaba | ((DBE + EPO) x ehuneko 150) x 3 x 14 | % 30 |
| 6 seme-alaba edo gehiago | ((DBE + EPO) x ehumeko 150) x 4 x 14 | % 30 |

Eusko Jaurlaritzaren Enplegurako Euskal Zerbitzuak (Lanbidek) zerga sortzen den urtearen aurreko urterako ezartzen dituenak izango dira diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO), eta, zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errentaren kasuan, sail orokorreko bizikidetza unitatearen pertsona batentzat ezartzen dena hartuko da kontuan.

Hobari hori edukitzeko eskatu behar izango da, nahitaez, eta urtero berritu behar da eskaera.

Hobariaren aplikazioa eta ezarpena eskatzen duten zergapekoek, eskaera-idatziarekin batera honako dokumentazio hauxe aurkeztu behar dute:

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

a) Familia-ugaria titulua, familia unitatea osatzen duten kide guztiak barne hartuta.

b) Egindako azken Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena -PFEZ- edo / eta aitorpen hori egin beharrik ez izatearen adierazpena, gehi familia unitatearen 10-T dokumentuaren kopia konpultsatua.

c) Ibilgailuaren Fitxa Teknikoaren kopia.

5. Indarrean dagoen Ibilgailu Historikoen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera historikotzat jotako ibilgailuentzat% 100eko hobaria ezartzen da, baldin eta horrela jasota badaude Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren Ibilgailu Historikoen Erregistroan.

Hobari horretaz gozatu ahal izateko, ibilgailuen titularrek administrazio eskudunak emandako agiria aurkeztu beharko dute, non jasoko den hobaria historikoa dela eta Ibilgailu Historikoen Erregistroan inskribatuta dagoela.

6. Zerga-kuotaren % 75eko hobaria izango dute ingurumenean eragin baxuko erregaiak darabiltzaten edo ingurumenean eragin baxuko motorren trakzio mekanikozko ibilgailuek lehen lau (4) urteetan, matrikulazio-urtetik edo kasuan kasuko sistemen instalazioa eta egokitzapena egin denetik aurrera zenbatuta. Kasu hauetan aplikatuko da hobari hori:

1) Eguzki energiaren bitartez propultsatutako ibilgailuen titularrei.

2) Ibilgailu hibridoen (gasolina-elektrizitatea, gasolio-elektrizitatea edo gasa elektrizitatea motorrak darabiltzaten ibilgailuen) titularrei.

3) Bioerregai motaren bat darabilten ibilgailuen titularrei (biogasa, bioetanola, hidrogenoa edo landare-olioetatik eratorriak).

4) Gas natural konprimitua eta metanoa darabilten ibilgailuen titularrei.

5) Berunik gabeko gasolina erabili ahal izateko ibilgailuan katalizatzaile bat instalatu izan dutela frogatzen duten ibilgailuen titularrei.

6) Klorofluorokarburo erabiltzen duten aire girotua erabiltzen duten ibilgailuen titularrei, sistema hori kentzen badute, edo klorofluorokarbururik gabeko beste sistema batez ordezten badute.

1) eta 4) bitarteko kasuetan, hobaria lehen matrikulaziotik aurrera aplikatuko da. 5) eta 6) kasuetan, aipatutako sistemak instalatzen direnetik.

Hobari honen aplikazio esparrutik kanpo geratzen dira berunik gabeko gasolina erabil dezaketen eta klorofluorokarbururik gabeko aire girotua instalatuta daukaten lehen eskuko ibilgailu guztiak.

7. Ibilgailu motordun elektrikoen titularrek zergaren kuotaren % 95eko hobaria izango dute lehen matrikulaziotik aurrerako lau (4) ekitaldietan.

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

## IV. SUBJEKTU PASIBOAK

### *5. Artikulua*

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako Zergei buruzkoak, 35. artikuluaren 3. idatzi-zatian aipatzen dituen erakundeak, baldin eta ibilgailua haien izenean agertzen bada zirkulazio baimenean, baita testamendu ahalordea edo gozamen ahalduna erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta Foru Arau horren 1. artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzen badituzte.

## V. KUOTAK

### *6. Artikulua*

1. Zerga honako tarifa taula honen arabera eskatuko da:

| | **TARIFAK.-** | |
|---|---|---|
| | ***Ibilgailuaren potentzia eta mota*** | ***Kuota /Euro*** |
| **A)** | **TURISMOAK** | |
| | 8 zerga z. Baino gutxiagokoak | 26,58 |
| | 8-11,99 zerga zaldi artekoak | 71,81 |
| | 12-15,99 zerga zaldi artekoak | 151,53 |
| | 16-19,99 zerga zaldi artekoak | 188,75 |
| | 20 zerga zalditik gorakoak | 236,02 |
| **B)** | **AUTOBUSAK** | |
| | 21 plaza baino txikiagoak | 156,56 |
| | 21-50 plaza artekoak | 222,98 |
| | 50 plazatik gorakoak | 278,76 |
| **C)** | **KAMIOIAK** | |
| | 1.000 kg. zama erabilgarri baino gutxiagokoak | 79,50 |
| | 1.000tik 2.999 kg. zama erabilgarrirainokoak | 156,56 |
| | 2.999tik 9.999kg. zama erabilgarrirainokoak. | 222,98 |
| | 9.999 kg. zama erabilgarri baino gehiagokoak | 278,76 |
| **D)** | **TRAKTOREAK** | |
| | 16 zerga zaldi baino gutxiagokoak | 35,23 |
| | 16tik 25 zerga zaldi artekoak | 55,35 |
| | 25 zerga zaldi baino gehiagokoak | 165,93 |
| **E)** | **TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEK ARRASTURIKO ATOIAK ETA ERDIATOIAK** | |
| | 750tik 1.000 kg. zama erabilgarrirainokoak | 33,24 |
| | 1.000tik 2.999 kg. zama erabilgarrirainokoak | 52,21 |
| | 2.999 kg. zama erabilgarri baino gehiagokoak | 156,56 |

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

| F) | **BESTELAKO IBILGAILUAK** | |
|---|---|---|
| | Ziklomotoreak | 9,70 |
| | 125 z.k.rainoko motozikletak | 9,70 |
| | 125etik 250 z.k.rainoko motozikletak | 16,61 |
| | 250etik 500 z.k.rainoko motozikletak | 33,11 |
| | 500etik 1.000 z.k.rainoko motozikletak | 66,45 |
| | 1.000 z.k.rainoko motozikletak | 132,26 |

2. Zein ibilgailu mota den zehazteko, arau bidez zehazten dena izango da kontutan eta baita hurrengo arauak ere:

a) Furgonetatzat hartuko da turismo ibilgailu bat pertsona eta gauzen garraiorako moldatzea, horretarako eserlekuak eta kristalak kenduz, tamaina edo ateen antolamendua aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtsean aldatzen ez duten beste aldaketa batzuk eginez. Furgonetek turismo gisa ordainduko dute, euren zerga potentziaren arabera, salbu eta hurrengo kasuotan:

Lehena.- Ibilgailua bederatzi lagun baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, autobus gisa ordainduko du.

Bigarrena.- Ibilgailuak baimena badu 525 kilo zama erabilgarri garraiatzek, kamioi gisa ordainduko du. Salbuespena dira auto-karabana legez moldatutako furgonetak. Horiek turismo gisa ordainduko dute.

b) Zerga honen ondoreetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira eta, beraz, euren zilindraiaren ahalmenaren arabera ordainduko dute.

c) Ibilgailu artikulatuen kasuan, aldi berean eta bereizirik ordainduko dute arrastaketarako potentzia daramatenek, arrastaturiko atoiek eta erdiatoiek.

d) Ziklomotoreek, atoiek eta erdiatoiek euren ahalmenagatik matrikulatu behar ez badute, bideetan ibiltzeko gai izango dira Industri Ordezkaritzak ziurtagiri egokia luzatzen dien unetik edo, hala denean, benetan zirkulazioan daudenean.

e) Trakzio mekanikodun beste ibilgailu batzuek garraiatu edo arrastatu gabe bide publikoetan zehar ibil daitezkeen autopropultsaturiko makinek traktoreei dagozkien tarifak ordainduko dituzte.

f) Zerga honen ondorioetarako, autokarabanek zerga hau ordainduko dute turismoak balira legez.

g) Lurroro ibilgailuek turismo ibilgailuen kontsiderazioa edukiko dute eta ordainduko dute zerga benetan duten potentzia fiskalaren arabera.

h) Ibilgailu misto-moldagarriak ordainduko zerga ibilgailu mota honetarako baimendutako plaza zenbatekoaren arabera:

DOCUMENTO
_ORDENANZA: 21- Ordenanza fiscal 3 (euskera)
IDENTIFICADORES
OTROS DATOS
Código para validación: 71PSB-LKW2A-21408
Fecha de emisión: 20 de Diciembre de 2021 a las 14:25:50
Página 8 de 9
FIRMAS
El documento ha sido firmado por :
1.- Idazkaria / Secretario/a General de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 12:13
2.- Alkate-Udalburua / Alcalde-Presidente de Laudioko Udala.Firmado 20/12/2021 13:31
ESTADO
FIRMADO
20/12/2021 13:31

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1



Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

h.1.- Eserilekuen kopurua, gidariarena salbuetsita, bere kategoria edo egiturarekin bat gehienez ere eraman lezakeenaren erdia baino gutxiago denean, kamioi legez ordainduko dute zerga, bere zama erabilgarriaren arabera.

h.2.- Eserilekuen kopurua, gidariarena salbuetsita, bere kategoria edo egiturarekin bat gehienez ere eraman lezakeenaren erdia baino gehiago denean, turismo legez ordainduko dute zerga, bere portentzia fiskalaren arabera.

i) Ibilgailu autokarabanek edo etxebizitza legez erabiltzeko egokitutakoek, turismo ibilgailuen kontsiderazio edukiko dute eta ordainduko dute zerga duten potentzia fiskalaren arabera.

## VI. ZERGA NOIZ SORTZEN DEN ETA ZEIN DEN KONTZEPTUA ETA OBJEKTUA. ZERGA-ALDIA ETA ORDAINDU BEHARRAREN SORRERA

### *7. Artikulua*

1. Zergaldia egutegiko urtearekin bat dator, salbu eta ibilgailua lehen aldiz erosten denean edo baxa kasuetan. Kasu horietan, zergaldia ibilgailua erosten den egunean hasiko da eta Trafikoko Burutzan baxa sortzen den egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zerga zergaldiaren lehen egunean sortzen da.

3. Lehenengo erositako ibilgailua bada zerga kuotaren zenbatekoa erosi zen egunetik eta abenduaren 31 arte dagoen denbora tarteari proportzionalki dagokiona izango da edo, bere kasua izatekotan, ibilgailuaren bajarena.

4. Ibilgailuari baja ematen bazaio, zerga kuotaren zenbatekoa urtarrilaren 1etik eta Trafikoko Burutzan baja sortzen den arte dagoen denbora tarteari proportzionalki dagokiona izango da.

## VII. KUDEAKETA

### *8. Artikulua*

Zergaren kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, eta baita zerga kudeaketaren bidez eman diren egintzen berrikuspena ere, ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den bizilekuko udalari dagokio.

### *9. Artikulua*

Laudio Udalak zerga hau autolikidazio gisa eskatu ahal izango du.

### *10. Artikulua*

Zerga ordaindu dela benetakotzeko, udal administrazioak ziurtagiri bat luzatuko du.

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 504570 71PSB-LKW2A-21408 2ABA124F30ED616FDC55F8238D568A46C0961DE0) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=29&idioma=1

LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Herriko Plaza, z/g
01400
**Laudio**/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFK/CIF: P-0103800-I

### *11. Artikulua*

Zerga ordainketa Laudio Udalak finkatuko du une egokian, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan izan ezik, kasu horietan artikuluak ezarritakoa bete beharko baita.

### *12. Artikulua*

1. Trafikoko Burutzan ibilgailuaren matrikulazioa, ibiltzeko gaitasunaren ziurtagiria eskatzen dutenek aurretiaz zerga ordaindu dutela egiaztatu beharko dute.

2. Ibigailuari aldarazpenak egiten bazaizkio titularrek Trafikoko Burutzari jakinarazi behar dizkiote, eta horiek ibilgailuaren sailkapena zergaren ondoreetarako aldatzen badute, eta baita ere eskualdaketa kasuetan, ibilgailuaren zirkulazio baimenean jasota dagoen helbide aldaketa edo ibilgailu horien baja kasuetan, titularrek aipatu den Trafikoko Burutzaren aurrean aurkeztu eta egiaztatu behar dute zerga honen ordainketako azken erreziboa; guzti hori, kontzeptu horretan kobratzeko aurkeztu eta oraindik iraungi gabe dauden zortzapeneko likidatutako zor guztiak kudeaketa eta ikuskapen bidetik ordainaraztekoa izatearen kalte barik. Aipatu den egiaztatzeko obligazio horretatik salbuetsita geratuko 15 urte edo gehiagoko ibilgailuen behin betiko bajako kasuak.

3. Trafikoko Burutzek ez dituzte baxako edo ibilgailuen transferentziako espedienteak tramitatuko, aurretiaz zerga ordaindu dela egiaztatu eta benetakotzen ez bada.

### *13. Artikulua*

Ibilgailuari matrikula berria jarri edo aldarazpenak egiten bazaizkio eta horiek ibilgailuaren sailkapena zergaren ondoreetarako aldatzen badute, interesatuek agiri batzuk aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartuak izan daitezen, matrikulazio edo aldarazpen egunetik zenbatzen hasitako 30 asteguneko epearen barruan. Agiri horiek hurrengoak dira:

a) Zirkulazio baimena.

b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.

c) N.A.N. edo F.I.K.

## VIII. AZKEN XEDAPENA

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen honako Ordenantza Fiskala, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2021eko irailaren 27 egunean eta behin betiko izaeraz, urte bereko azaroaren 20 egunean. Indarrean jarriko da 2022ko urtarrilaren 1 egunean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

Elektronikoki sinatutako dokumentua